

KUTSADURA, EGIA DESEROSOA

Posted on 06/03/2015 by Naider

Ziurrenik Europan *txinera dirudi* baina [Chai Jing](#) ezaguna da dagoeneko bere herrialdean bere azken dokumentala dela eta. Kazetari txinatar honek erreportaje bat egin du, munduko herrialderik kutsatzaileenaren ingurumen egoera gogor kritikatzuz.

Alabari kutsadurari egozten dion tumore onbera diagnostikatu ostean, iraultza ekologista honek herrialdea harritu du dagoeneko *trending topic* den dokumentalarekin. Ikatzairen kontsumo handia (herrialdearen energia iturri nagusia) edo erregaiaren kalitatea hobetzera behartuta Txinak petrolio konpainia handiek jasaten dituzten mehatxuak dira kritikatu beharreko puntu nagusiak.

Gaia paradoxikoa da kontuan hartuta Txinako Gobernuko funtzionarioek, hala nola ingurumena babesteko ministro berriak, dokumentala goraipatu dutela, eta gobernuak ingurumena babesteko legeak betearazteko duen botere eza ere kritikatzeko du. Egia esan Txinako egoera muturrekoa da eta mundu osoari eragiten dion eta interes globaleko gaia izan beharko luke. Horrelako jarduerak ezagutaraztea guztiz beharrezkoa eta onuragarria da.

There are no comments yet.